

ZENBAT BURU

Ion Loiola

ERREPORTAJEA

Txikiteoaren
ohitura

GEHIGARRIA

kiliBARREN

BERBETAN

Maite Barruetabeña

KIROLA

Eskubaloiko
senior nesken taldea
Ligako txapeldun

KULTURA

Korrika Kulturala
martxoaren 5ean
hasiko da

B

1999ko otsailaren 26a
VII. urtea - 268. zkia

111

N

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

Maite Barrueklipeña

G⁹ 911 11 unduko

Txapelketan 4. sailkatu da



18 urtetik gorako emakumeentzako programa



sauzatz.ea.,

zeuve ametsak proiektu bhurtzea • • zeure ideia'c

ze'02-r' /-1\r\ -1-1Ucle?

Programa





ION LOIOLA

Gizarte duin baten aldeko taldeak

Lerro hauen bitartez, nire iritzi apala azaltzeko asmoa hartuz, BARRENe-ko irakurle zaitudan horri zuzentzen natzaizu. Konturatzen naiz irakurle zaitudan horri sekuraski ez zaizula axolako nire hitz jarioa, beraz, ahaleginduko naiz landu beharreko gaia ahalik eta zuzenkien azaltzen.

Gaur egungo bizitzan pertsona zuzenki edo zeharka ukitzen duten hainbat talde daude. Talde hauetako batzuk eliza ingurukoak dira, nahiz eta gizarteko arazoan aurrean lan egiten duten. Besteak, berriz, inolako identitate berezirik ez dutenak ditugu eta beraien helburua gizartearen beharren edo injustizien aurka zuzenean lan egitean datza.

Idazle honen asmoa ez da talde hauen aurrean iritzi edo ikuspuntu bat azaltzea, batez ere, pertsona orok bere iritzia duela jakinda.

Gaur egun gizarte honetako talde askoren asmoa, egoera injustoak edo gabeziak aldatzean eta osatzean datza. Kasu gehienetan borondate handia azaltzeaz gain, dobane-ko lana ere izaten da.

Talde hauetako partaideek ilusio asko jartzen dute bere lanean eta neurri handi batean egindako lanarekin jasotzen dute fruitua, besteen alde egindako lanak ematen duen barruko poza izaten dela esan daiteke.

Bestalde, badago pertsona ugari, gizarte honen alde ezer egin gabe, gutxi batzuek egindako lana kritikatzeko dutenak. Hauen jarrera, ezkorra izateaz gain, ez da batere emankorra, gaur egungo hainbat egoerari eta arazori aurre egin eta aldaketa positibo bat emateko.

Ez dut ukatzen kritika izatea positiboa ez denik. Honela, ikusi, irakurri, entzun eta bizitzen duguna gordin-gordinik gureganatu beharrean, informazioa aztertu egiten dugu.

Bukatzeko, **luzatu** nahi dizuedan mezua honako hau da: talde hauek bultzatzen dituzten hainbat aldarrikapenetan eta ekintzetan parte har dezazuela, eta honekin batera, euren mezua beste batzuegana helarazten ahalegindu zaitezte, gizarte justuagoa eta berdintzuegana lortzeko bidea jorratzeko aurrera pausoak eman ditzagun.

"Badago pertsona ugari, gizarte honen alde ezer egin gabe, gutxi batzuek egindako lana kritikatzeko dutenak. Hauen jarrera, ezkorra izateaz gain, ez da batere emankorra"

Atari hau ez da BARRENeN editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagakionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barreak, Birrak eta Barreak



BaRREN



Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

943 74 41 12

Publizitatea:

943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTAILEA Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA Ainhoa Lodoso

KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBUZITATEA Maitane Cid

MAKETATZAILEA Bea Ansola

ADMINISTRAZIDA Amaia Martin

GERENTZIA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Irati Agirreazaldegia,

Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate,

idola Arozena, Martin Dominguez,

Jon Eugi, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorrill, Ion Gurrutxaga,

KOKOE, Imanol Larrañaga,

Ongarri Zine Kluba,

Asier Orbea, Iñigo Otario,

Jon Peli Uriguen, Iban Urizar,

Amaia Urzelai, Maite Vallejo.

AZALEKO Estu.ota Gotzon Garateren liburitik

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1.0313f92

ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzetako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



*Egag fundazioa
& fundacin.*

DAMOBAT

41 GOITI
GRUPO DANOBAT

Mendaroko alkatearen jarrera dela-eta

Mendaroko HB, MTI eta EAko talde munizipalek 1999ko otsailaren 19an, ostirala, plenora ez joateko arrazoiak ondokoak izan zirela azaldu nahi dute:

Alkateak eta bere taldeak ez du plenoetan erabakitzen diren puntu garrantzitsuenen berri bezpera arte ematen. Horregatik, gai horiek behar bezala lantzeko denborarik ez da egoten.

Gainontzeko talde munizipalak gutxiestearen jarrera harrokoa eta prepotentea ohikoa da alkate jaunaren aldetik.

Hainbat eta hainbat aldiz salatu izan ditugu maniobra hauek eta beti erantzun bera jaso izan dugu.

**HBko Ramon Urain eta
Arantza Egaria,
MTIko Joseba Olazabal eta
EAko Nuria Ansuategi**

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz gutiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**

- Emakurak batek deitu digu Eusko Tren enpresari zuzendutako kexa hau plazaratzeko: "Elgolbarko tren geltokiko kanpo aldean eserleku bakarra dago. Orain dela gutxi kartel berriak jartzen ibili dira baina, itxura denez, ez dira konturatu eserleku bakarra dagoela. Lau lagun elkartzuz gero, eserlekua bete egiten da eta gainontzeko guztiek zutik egon behar dute. Beraz, zeren zain daude eserleku gehiago jartzeko?".
- Guraso batek Ermuaranbide kalean dabilen trafikoa dela-eta, ohar bat luzatu nahi dio Udaltzaingoari. "Madalako etxiak eitzen hasi diazenetik, kamioi trafikua ikaragarri haunditmi da Ermuaranbide Ikastolako umiak etxera bidian duazenen peligro haundixa sortzen da, kamioiak sartu-irtenian dabizelako eta autuak abiadura haundixan pasatzen diazelako. Horregatik, sarrera-irteera ordue-tan udaltzainen bat inguruan egotia komeniko tzake. Hobe da akzidente bat gertatu aurretik neurriak hartzia".

.11111111

- Urasandin bizi den herritar batek auzoa zeharkatzen duen errepidean, altzari fabrika parean dagoen 180 gradutako bihurgunean egin den hobekuntza txalotu nahi du. "Hau bezalako errebuelta arriskutsuko asfalto 'pikatzeta' ideia hona iruditzen zait, batez ere istripuak izan direla jakinda. Arazoa konpondu ez arren, irristatzeko arriskua gutxitu da, euriarekin patinaia pista zirudien-eta".



BAI, ESAN?



**Izaskun
Belategi**
AEK-ko arduraduna

Korrika korrika,... badator Konika? Bi urtetik behin antolatzen den euskararen aldeko jai enaldoi honen 11. edizioa izango da aurten. Martxoaren 19an hasi eta 28ra bitartean Euskal Herriko herri eta hiri gehientsuenak pasatuko ditu. Gure herritik martxoaren 24an, asteazkena, pasatuko da gaueko 21:00etan. Korrikaren eta AEKren inguruan berba egiteko deitu diogu Elgoibarko AEK-ko arduraduna den Izaskun Belategiri.

- Zein dira Korrikaren helburu nagusiak?

Bi dira nagusiki: Euskal Heni osoa, Iparraldea eta Nafarroa barne, ahalik eta azkarren euskalduntzea. Horregatik, Kontseiluak antolatuta, orain gutxi amaitu den 'Bai Euskarari' kanpainan lortutako euskararen aldeko sostengua konpromezu bihurtu behar da. Bestalde, AEKren helburu nagusia den hau gauzatzeko bitartekoak jarri behar dira eta horretarako ezinbestekoa da dirua biltzea.

- Hasierako eta oraingo helburuak berberak al dira?

Bai, Autonomia Erkidegoan aurrerapauso batzuk eman badira ere, ez da nahikoa. Hor dago Nafarroa. Datuek esaten digute euskara geldo dagoela eta Iparraldean, berriz, galtzen ari dela. Beraz, Korrikaren hasierako helburua Euskal Herria euskalduntzea baldin bazen, oraingoa berbera da.

- Euskara eta AEK horrelako ekimenen beharrean daude oraindik, ezta? Noiz arte? Kontseiluak lortu dituen akordio sozialak oso inportanteak dira euskararak aurrera egin dezan. Garbi dago euskalduntze prozesua dinamika berri batean sartuko dela, baina hau ez da egun bateko lana. Horregatik, Euskal Herria euskalduntzeko, aurrera begira ere, beharrezkoak ditugu bai Konika eta bai AEK ere.

- Amaitzeko, nola ikusten duzue helduen euskalduntze-alfabetatzea Elgoibarren? Azken aldian, erabileraren inguruan oso datu baikorrak eman dira. Baina eguneroko bizitzak ez digu horrelakorik erakusten. Batetik, euskaldunak ugari izan arren, oso gutxi dira euskara erabiltzen dutenak eta are gutxiago euren burua alfabetatu beharrean ikusten dutenak. Horrela, euskara ikasten diharduenak ez du behar adina laguntza jasotzen erabilerari dagokionez, eta honek euskalduntze prozesua guztiz moteltzen du.

Txikiteoa:



Aspaldiko ohitura da lanetik irten eta etxera joan aurretik lagunekin ardo batzuk hartzea, txikiteoa alegia. Elgoibarren, eguerdian zein iluntze partean ikus daitezke gizonetzko kuadrilak txikiteoan. Ohiturak aurrera jarraitzen du baina badirudi gazte jendeak ez diola jarraituko eta gero eta nagusi gehiago ikusten da txikiteoan. Ardo bat hartzen zeuden bitartean hainbat txikiterokin hitz egiten jardun dugu dauzkaten ohituren berrijakiteko.

Juanito Gorostiza txikiteoaren Urrezko Garaia gertutik ezagutu zuen gizona da. Gaztetan hasi zen txikiteoan eta, horrez gain, Errosario kalean zegoen Gorostiza tabernaren jabea izan zen. "Garai hartan tailarrian lan faltarik ez zauan eta dirua aldiari izaten genduan. Lanetik urten eta txikiteora juten ginan. Afal ostian ere kalera urtetzen genduan askotan". Kantua izan zen txikiteroen laguna urte askoan, "nahiz eta diktadura baten menpian bizi, txikiteuan kantau itxen genduan, askotan serenuari ospa itxen ibili bihar izaten ginan gabetan". Barra atzetik ere ezagutu du txikiteoa Juanitok, "ama zanak goizeko zazpiretan zabaltzen zaban tabernia eta apopiluak anis koparen bat, bokadilua edo kafesnia hartzera etortzen zian lanera jua aurretik. Eguardixan Sigmako sirenia entzun orduko, mostradora txikitoz beteta ipintzen genduan eta jendia tragua hartu eta berehala juaten zan". Orduan ere kirola izaten zen hizketako gai nagusia. "Gorostizanian deportietako resultau danak egoten zian ipinitxa, eta partido bat amaitxu orduko tabernan jendia kabidu ezinda egoten zan, danek emaitzak jakitzia nahi izaten zaben eta".

CALTZEA Voitlira?

LAN OSTEKO TXIKITEOA

Ostiral eguerdian trago bat hartzen topatu genituen Jose Luis eta Julio Urbiola, Jestis Hoyos eta Jose Luis Epelde. Hamabi eta erdiak inguruan elkartu ohi dira, lanetik irtendakoan, eta hiru edo lau txikito hartzen dituzte. Baina asteen zehar ezezik asteburuan ere txikiteatzen dute eta orduan lagun gehiago elkartzen dira, hamar edo hamabi. "Sasoi baten hogeitxikan gora ibiltzen ginan, baina batzuk zahartu in dia, beste batzuk hil, eta badaude rejimenagatxik laga debenak ere", esan digu Epeldek. Ardoaren prezioak gora egin arren, eguneroko errondarekin j arraitzen dute, eta taberna bakoitzean batek ordaintzen du guztiena. "Preziva gora itxen dabanian jendia hasieran alborotau itxen da, baina atzera lehengora bueltatzen dia segitxuan". Txikitoarekin ez dute pintxorik jateko ohiturarik, astegunetan ez behintzat. "Za-

patuetan mendixan ibili ostian, batzuetan pintxo bat edo beste jaten dou eta gero txikito batzuk edan". Ardo normala hartzen dute gehienetan, nahiz eta asteburutan, noizean behin, berezia ere edan. Txikiteoa desagertu egingo dela usate dute, "gazte jendiakin asko bajauko da. Astegunetan gaztiek ez dabe txikiteorik itxen eta asteburuetan ere txikituak baino gehixao beste edari batzuk hartzen ditzue". Edateko ezezik hitz egiteko ere izaten da txikiteo ordua, eta lagun artean gai asko jorratzen dituzte. "Esku pelotaz, futbolaz eta boxeuz itxen dou berba. Emakumietaz gutxiau, edadian aurrera guaz eta", esan digu gizon kuadrila honek. Gaztetatik ibiltzen dira txikiteoan eta ahal duten artean ohiturari eutsiko diotela argi utzi dute. "Gu andra onekin ezkondu ginan eta gure ibilerak ulertzen ditzuenez, barkatu itxen digute".



Lanetik irtendakoan txikiteoa egiten dute Jose Luis eta Julio Urbiolak, JesUs Hoyosek eta Jose Luis Epeldek.

ZAHARTZAROAN, ARDO ONA

Pedro Ezkurra, Vicente Lazkano eta Jose Ignacio Azpiazurekin ere txikito bat hartzen zeudenean egon ginen. Eguerdian egiten dute txikiteoa, baina bada arratsaldean trago bat edo beste hartzera ateratzen denik ere. Normalean sei lagun inguru elkartzen dira, "Zapatuetan danok urtetzen gera eta balantzaka hasitxakuan juten gera etxera". Gosez egonez gero, txikitoaz gain pintxoren bat jaten dute, eta orain lehen baino gutxiago edaten dute. "Etxian bokadilorik hartu ezian tabernan jaten dou zeozer, normalian ezer jan be ez dou edaten. Dexente janez gero ez dao hainbeste problema ardauakin". Ardoaren prezioak gora egiteak ez die gehiegi eragin, batzuetan ardo normala edaten dute eta beste batzuetan, berriz, berezia.



Pedro Ezkurra, Vicente Lazkano eta Jose Ignae'to Azpiazu eguerdiro ateratzen dira erronda egitera.

"Gehixenetan espeziala hartzen dou, segun eta poltsikua zela dauan. Zahar-tutakuan ardaun onan edan bihar da eta guk gutxi edaten dogunez onan hartzia gustatzen jaku". Gai denetaz hitz egiten dute kuadrilan, "emakumietaz eta deportietaz asko. Gehixenetan pelotaz

itxen dou berba baina futbola ere ibiltzen dou, Bilbokuak eta Realekuak gaude eta diskusivak eukitzen ditxugu", Lehengo garaia txikiteorako askoz hobeena zen. "Oin dala berrogei urteko kontua ez da berriz etorriko. Lanetik urten eta bazkaldu aurretik lau ardo hartzen zian. Dirua euki ezkerro arratsaldian ere batzuk itxen zaben txikiteua". Beraien ustez txikiteoaren ohitura urte gutxiko kontua izango da. "Zahar batzuk bagabiz, baina gaztiak ostiral eta larunbatetan bakarrik urtetzen dia eta gainera ez dabe ardaurik edaten. Gu bizi guztian txikiteuan gabiz eta ez gaude alkoholizauta, gaztiak berriz oso gutxi edanda I g urterako alkoholizauta daude. Jakin in bihar da neurrixan edaten".

"ZAZPI" KOADRILAKOAK ARRATSALDEZ

A stelehen iluntzean egon ginen "Zazpi" koadrilakockin Hauek lanetik irtendakoan ordubete pasako erronda egin ohi dute egunero. Taldeko batzuk noizean behin baino ez dira azaltzen, baina gehienak egunero elkartzen dira. "Taberna baten gelditzen gara zazpirak aldera eta handik ohiko bueltatxoan egiten dugu zortzi eta erdiak arte, ti ere Maala inguruan ibiltzen gara". Txikitoaren prezioak gora egin du eta hasierako egunetan, kuadrilan, horren inguruko komentario eta protestak egon arren berdin jatrainen dute egunero txikiteoarekin. Ardo normala edaten dute txikiteoan. "Berezia oso garestia da eta txiki-

teorako ez da ona. Normalean txikitoaren erdia hartu ohi dugu eta normala hobeto da horretarako". "Zazpi" koadrilakoez ez daukate pintxoak jateko ohiturarik. "Etxean jaten dugu pintxoren bat, eta bost edo sei txikito hartu ostean afaltzera

joaten gara. Hala ere, badaude tabernan pintxoak jaten dutenak". Emazteek onartzen dute senarren bueltatxo hori. "Ordu eta erdi baino ez dugu egiten txikiteoan eta lagunekin egoten garenez aguantatzen dute". Kirola da gehienetan lagun artean hitz egiteko erabiltzen duten gaia. "Oso kirolzaleak gara eta bizikletaz, pilotaz, eta egunaren arabera futbolaz ere aritzen gara". Gazteen artean ez diote txikiteoari jarraipenik ikusten. "Gazteak gu baino askoz sedentarioagoak dira. Toki batean jarri eta bertan egon ohi dira taberna ezberdinetan mugitu gabe. Gainera ez dira ardozaleak, garagardoa edaten dute gehienbat".



Zazpi koadrilakoak egunero arratsadez egin ohi dute txikiteoa Madaia aidean.

Ba al daukazu txikiteatzeko ohiturarik?



J. IGNACIO LASKURAIN
50 urte, itsasgizona

Auzoko lagunekin pare bat gorri hartzen ditut. Lehen banuen txikiteatzeko ohitura, baina gero eta gutxiago ibiltzen naiz, galtzen doan ohitura baita.



MERCEDES REYNA
40 urte, administraria

Bai, asteburuetan badut ohitura kuadrilan edo senarrarekin trago batzuk hartzeko. Nik, hala ere, zuritokak edo freskagarriak edatea nahiago dut.



GOTZON ARRIETA
31 urte, irakaslea

Bai, gehixenbat asteburuetan ibiltzen gera, denboria dakagunian. Kuadrila giruan, pintxo batzuekin tripia bete eta bakoitzak ditzun gustuen arabera hartzen du tragua.



ANTONIO JIMENEZ
46 urte, torneroa

Oso gutxi. Noizean behin lagun batekin elkartu eta hiru edo lau beltz hartu izan ditut baina oso gutxitan. Gainera, gero eta garestiagoa da.



JOSE GONZALEZ
71 urte, jubilatua


Bai, oraintxe bertan horretara nihoan. Ia egunero txikiteatzen dut eta lagunekin elkartu eta hitz egiteko modu egokia dela uste dut.



CARMEN FERNANDEZ
60 urte, etxeko langilea

Ez, eta etxeko inork ere ez du txikiteatzen. Baina lanetik irten eta lagun artean egoteko modu proposa deia iruditzen zait.

PUB



ELGOIBAR
943 74 42 65

11TURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behear 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNTATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK PINTAKETA

IGOGAILUAK

IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

943 20 35 15 • 111 ABERIAK 943 20 31 25
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

IriondoTABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza. 2 • Tel: 943 74 00 15



Csasunean adituait

GAIA:

GRYPEA, egunetan sendatuta

Ikerlari asko eta asko jo eta su ari dira gripearen aurkako botika eraginkorra topatzeko lanetan. Esaten dutenez, laster izango dugu botika zoragarria farmazietan salgai; urte amaierarako agian. Gripearekin gaudenean, astebete pasa behar izaten dugu etxean, edo kasurik txarrean, ohean.

Gaixotasunari aurrea hartzea izaten da onena; horretarako daude txertoak. Bakunek edo txertoek sistema inmunitarioa estimulatu dute eta gure organismoak antigorputzak sortzen ditu. Infekzioa ez hartzeko modurik egokiena izaten da. Hala ere, gerta daiteke txertoa hartu ondoren gaixotzea.

Esaten dutenez, urte amaierarako salgai egongo den botikak, birusari eragiten dio eta horregatik izango da gaur egungo medizina baino eraginkorragoa. Bi egunetan sendatuta egongo gara. Baldintza bakarra da sintomak agertu eta 30 orduren barruan botika hartzea. Zergatik da horren zaila gripearen aurkako botika eraginkorra topatzea?

Gripearearen birusa etengabe aldatzen da. Urte batetik bestera, birusaren kode genetikoa eta berau estaltzen duen proteina zertxobait aldatzen dira, eta zientzilariek txerto berriak atera behar izaten dituzte eraidatutako birusari aurre egiteko. 20-30 urtetik behin, birusaren genoma eta proteina erabat aldatzen dira eta gizakiak babesik gabe geratzen dira birus berriaren aurrean. Kasu honetan bakuna berria egin behar da. Gripearearen sintorna nagusiak:

- ❖ Eztarriko mina
- ❖ Suk an'a
- Giharreetako mina
- Buruko mina
- Gonbitolarria
- ❖ Nekea
- Hotzikarak

MASAJ ISTAK

Victoria Iraegi

Plaza Migel Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**

..... Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Kemen Belardenda (Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiolika, yoga)

..... San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Surya Belardenda (Yoga, reiki eta masaia ikastaro eta tratamenduak)

..... San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

OPTIKAK

Ikus (Optiko-optomethesta)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

..... San Bartolome, 9 • Tel: **943 74 35 62**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Ibiltzen

..... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

..... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñaki Rivero

..... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

..... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

PSIKOLOGOAK

Nare psikologoak (Helduak, haurrak eta bikoteak)

..... isasi 17, 1-B Eibar • Tel: **943 20 05 95**

CGida **honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra^{il}**

Osasuari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeke 943 74 41 12ra

• 4. 'Barrikotea' antolatu du Kimetz Elkarteak

Martxoaren 6an, zapatua, 4. 'Barrikotea' izango da Kimetz Elkartearen. Sagardotegietako ohiko jakiak dastatzetik aurrera, euskal kulturaz gozatzeko aukera ere izango da. Makailo tortila, txuleta, in-txaurrak, gazta, kafea eta kopak osatzen dute menua eta Eusebio Lasarte bertsolari eta txiste kontalari oriotarrak giroa alaituko du. Esan digutenez, afarirako txartelak aurrez eskuratu behar dira, afarira joan daitezkeen lagun kopurua mugatua baita. Iaz 80 lagun elkartu ziren. Txartelak ohiko tabernetan eros daitezke 2.200 pta.n eta afaria gaueko 21:00etan izango da.

• Martxoaren 3ko Izar Bila saioan azalduko da Nathalia

Nathalia Mellado abeslari elgoibartarra ETB leko Izar Bila saioan agertuko da martxoaren 3an, gaueko 22:30ean. Bi abesti kantatuko ditu: bere erreperatorioko kantua bat, 'Ahaztu nahi zintuzket' (euskarara itzultitakoa), eta Monica Naranjo ezagunaren 'Erniezo a recordarte'. Nathaliarekin batera beste hiru abeslari agertuko dira. Hiruretatik onena finalerdietara pasatuko da. Espero dezagun Nathalia izatea.

• Afrikari huruzko erakusketa IMHn

Joan den astelehenean hasi eta martxoaren 5era bitartean, Afrikari buruzko erakusketa ikusgai egongo da Makina Erremintaren Museoa. *Mugarik Gabe* Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatutako erakusketa da eta Afrikako bizimodua azaltzea du helburu. Gerrak eta gatazkak alde batera utzita, bertako ohiturak, egitura soziala, ekonomikoa etab. ezagutzeko aukera eskaintzen du erakusketak.

Arnaldo Otegi, HBko bozeramalea: "Euskal Herriaren etorkizuna euskaldunok erabaki behar dugu"

ETAren suetena Euskal Herriari zuzendua dagoela esan zuen, besteak beste



Arnaldo Otegi HBko bozeramaleak hitzak eman zuen asteazkenean, Ahiak 24. Kultur Etxeko hitzaldi gela txiki geratu zen, entzule asko hurbildu baitziren. Euskal Herri bizi duen momentu politikoa ulertzeko, ezker abertzalearen ikuspuntua argitzen saiatu zen. Euskal Herriko marko eta Estatutua bezalako tresna politikoak agorturik zeudela aipatu zuen Otegi, "lurralde zatiketa eta soberania ezan oinarritutako autogobernu era bat delako". ETAren suetenari buruz eta Lizarra-Garaziko akordioaren inguruan ere jardun zuen. "Abertzaleek, talde politikoek, sozialek eta sindikalek elkarrekin lan egitea funtsezkoa izan zen Lizarra-Garaziko akordioa aurrera ateratzeko. Gatazka politikoak irtenbide polizialik ezin zeza keela izan konturatzea aurrerapauso garrantzitsua izan da". Lizarra-Garaziko hitzarme-

nak planteatzen zuen eskema, ezker abertzaleak urteetan izan duen eskema historiko eta politikoa berreskuratzea zela esan zuen. "Euskal Herri bizi duen gatazka Euskal Herriaren eta Estatu frantses eta espainiarren arteko gatazka politikoa dela esaten du hitzarmenak, eta negoziatio politikoaren bidez konpondu behar dela, baina ezin zaio inori aurre baldintzarik jarri". Arzaoa erabakitze gaitasuna Euskal Herriak duela gaineratu zuen Arnaldok, "ETAren sueten mugagabea euskal gizarteari zuzenduta dago eta ez espainiar edo frantsez estatuari. ETAk bi erronka planteiatu ditu. Batek, Euskal Herri euskalduna eta askea nahi dutenei, bakoitza bere esparruan eta enitmoan lanean has dadila eskatzen dio ETAk. Beste erronka Estatuari egiten dio. Estatua 25 urtez demokrazian gauza guztiak posible direla esanez jardun baita, beraz, orain hori proba dezatela eskatzen dio". Kale borrokari buruz, Arnaldok esan zuenez, "ekintza biolentoak kondenatzeak ez du ezertarako balio. Bihar euskaldunen arazo guztiak konponduko direla jakingo banu, oraintxe kondenatuko nituzke ekintza horiek, baina hori ez da horrela. Gure apostu politikoa, biolentzia espresio guztiak desagertzearen aldekoa da, eta hori apostu askoz serioagoa da".

Hasi dira babes ofizialeko etxeak eraikitze lanak

Hasi dira Ikastola ondoko terrenoetan babes ofizialeko etxeak eraikitzen. Guztira 165 etxebizitza egingo dira eta batez beste 7 eta 11 milioi bitartekoa izango da. 8 etxebizitza blokeak Ikastolan eta hasi eta Karkizaoko etxeak bitartean eraikiko dira. Ingu-rua tx ukuntzeko asmoa ere badute. Ikastola inguruan errotonda bat egingo dute, Madalako etxeak eraikitzen dituztenean sortuko den kalearekin bat egingo



duena. Honez gain, etxeen aurrean parke bat eraikiko da, oztopo arkitektonikorik gabeko oinezkoen sarrerarekin.

Eusko Jaurlaritzako *Etxebide* erakunde a da etxebizitzaren gestioa daramana eta eskaerak egiteko epea iaztik dago irekita,

proiektua Udalean onartu zenetik hain zuzen. Babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratu nahi duenak *Etxebide* erakundera deitu eta eskaera orri bat behar du. *Etxebideren* telefono zenbakia 902 42 44 44 da.



Txankakua Elkartearen zozketan saritutakoak

Txankakua Merkataria eta Zerbitzu Elkartekoek egindako zozketaren irabazleak Kultur Etxean bildu ziren ostegunean, hilak 18, egin zen sari banaketan. Sarituak honako hauek izan ziren ezkerretik hasita: Emilio Barrena 015077 zenbakiarekin, Arantza Astiazaran 058162 zenbakiaren jabea, Txankakuako ordezkaria eta Karmele Garcia 05631 zenbakiarekin. Sarituek 50.000 pezetako txeketa bana jaso zuten Txankakuako dendetan gastatzeko.



Elbar-Gasteiz autopistaren aurkako protesta

Debaldeko Gaztetxeen Koordinadorako hainbat kide Maltzagan elkartu ziren aurreko astean Eibar-Gasteiz enepidearen obrak hastear daudela salatzen. Pankarta erreibindikatiboz josi zuten ingurua eta 700 bat komunikatu banatu zituzten gidarien artean. Komunikatuan adierazten dutenez, "informazio falta eta manipulazio gehiegi dago, diskurtso faltsu ugari daude gure poltsikotik ordaindu beharko dugun errepide hau goraiatzeko". Koordinadorako esanetan, 130.000 milioi pta.ko aurrekontua du errepideak, "nahiz eta amaitu orduko, bikoiztu egingo den. Gainera, beste 20 urtez jarraituko dugu A8 autopistaren peajea ordaintzen". Koordinadorakoek eskutitz bana bidali diete herriko kolektiboari, Eusko Jaurlaritzara eta Gipuzkoako eta Arabako Diputaziora gutun bana bidal dezaten errepidearen aurkako jarrera azalduz.

Unialco supermerkatua urrian Ireldko dute

San Pedroko fabrika zaharra zegoen tokian eraikiko duten supermerkatuak 2.500 m²ko azalera izango du eta urrirako eraikuntza lanak bukatzea espero dute. 50 lanpostu berri sortuko ditu supermerkatuak. Proiektuaren bultzatzaileek Udalari agindu bezala, elgoibartarrek lehenetasuna izango dute lanpostuak eskuratzeko orduan. Langileen aukeraketa apiriletik aurrera egingo da eta lanpostuen eskaerak Unialcok Irunen duen egoitzara bidali behar dira. Unialeoko arduradunek Udaletxera bidaliko duten gutun batean lanpostuen zerrenda jakinaraziko dute eta denek bete beharko dituzten ezaugarriak zehaztuko dituzte.



Jon Suarez idazle elgoibartarraren lan berria kalean

Bizkaiko argitaletxe batek haur eta gazte literaturako 12 lan berri kaleratu berri ditu "Ipotxak eta erraldoiak" sailean. Hauetariko bat Gasteizen bizi den Jon Suarez elgoibartarrak idatzitakoa da. 'Eta alkatea' da Suarezek idatzitako ipunaren izenburua eta 8 urtetik aurrerako neska-mutilentzat da. Herri bateko alkateak lanera ez joatea erabakitzeak dakartzan arazoaren hitz egiten du Suarezek lanak.



Ikastolakoak Xoxoten eta Erlon egon ziren

Argazkian agertzen den kuadrila Ikastolako haur eta gurasoak dira. Xoxotera eta Erlora egin zuten mendi irteeran tontorrera iristea lortu zuten. 100 mendizale ingum agertzen dira Erloko harkaitz artean ateratako argazkian. Hiru hilabetean hehin egiten dituzten ekitaldietan sartzen da irteera hau.

Hitz egi irakurri, idatzi, komunlkatu...

Euskaraz?

**Inoiz
baino
errazago!**

EUSKALZAINDIA SAISA 1997
«SASIA» MIKEL ZABATE SAISA

'11,1'T.IU? ' 2 th,?(1tiT72.411(5
(DTd1JUC) drilW[t,[j?Uti

4'

ULK:1.2

Egunkaraail©

~~50.400 pzta.~~

27.000 pzta.

Egunkaria

*Ez galdu aukera hau.
Jar zaitez harremanetan
hurbilen duzun euskaltegiarekir*



A

Antxoni Longartek utzitako argazki hau duela 55 urte inguru ateratakoa da, Altzolako San Juan jaietako San Juan Txiki egunean hain zuzen ere, Argazkian Altzolako, Mendaroko eta Elgoibarko jende

ugari agertzen da. Besteak beste, **Antxoniren ahizpak, Rosario** eta **Martina Longarte**, lehengusu **Adrian (t)** eta **Ignacio Irusta (t)**, **izeba Felipa Longarte (t)** Irustaren alareuna etab.

EAJ

Anton Zubiaurre



"Aurtengo aurrekontua 338 milioi pezetakoa da, Mendarok historian izan duen altuena. Lau proiektu na-

gusi izango dira eta horietako garrantzitsuena Udaletxe berriaren eraikuntza da. 250 milioiko kostua du, 150 milioi Mendaroko Udalaren esku egongo dira eta gainontzekoa Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak jarriko dute. Eraikin berriak bulegoak, plenoetarako aretoa eta 250 m²ko beste areto bat izango ditu bideo-emanaldiak, hitzaldiak eta abar egiteko.

Bestalde, Azpilgoetan 54 etxebizitza eraikiko dira eta bakoitzaren prezioa 16 milioi ingurukoa izango da. Horrez gain, Garagartzan, ospitalaren azpiko aldean, 30 milioiko prezioa izango duten 51 txalet egongo dira. Hauek eraiki eta gero 8.000 m² geratuko dira- erdia gune berdea izatea Mirgenuke eta beste erdiañ aire libreko igerilekua egin nahi du

Industrialdea handitzeari ere garrantzi handia eman diogu. Izan ere, gaur egun jende gazte asko dago lanean industrialdean eta gerora begira, atzetik datozen gazteek ere herrian lan egiteko aukera izatea nahi genuke. Gainera, etxe berriak eraikitzen ari direnez, Mendaron bizi izan-
oo dute eta zerbitzuak ugarituko dira.

Aipatutakoez gain, *Repetidora* eta *Alkorta* bitarteko bidea konpondu egongo da. Obrak irailean hasiko dira, aurretik gas naturala sartuko baitugu herrian".

338 AURREENTUA eztabaidagai

Orain gutxi onartu berri dira 1999 urteko Mendaroko Udal Aurrekontuak, 338.480.000 pta. guztira. Aurtengo, 222 milioi pezetatik gorako inbertsioak egingo dira, partidarik handiena Udaletxeko obretarako izango da.

Bestalde, euskarari buruzko gaietarako 1,5 milioi pezeta bakarrik zuzenduko dira. Gai korapilatsua izaten da honakoa eta guk, alderdi politiko guztiengana jo dugu aurrekontuen inguruan duten iritzia jasotzeko asmoz.

HB
Arantxa Egaña



"Ondo iruditzen zaigu Industrialdea haunditzea, izan ere eskaera hor dago eta beharrezkotzat jotzen dugu. Halere, ez dugu batere ondo ikusten gaur egun EAJk etxebizitzaren gaia nola daraman. Gure ustez luxuzko etxebizitzak eta txaletak eraikitzeak ez dio onik egiten Mendarori, gazteek ezin baitituzte erosi. Berriak egin aurretik etxe zaharrak bete beharko lirateke eta gero, beharra balego, etxebizitza sozialak eraiki. Inolako planifikaziorik gabe ari dira etxeak eraikitzen Mendaron.

Aurtengo aurrekontuen zati handi bat Udaletxe berria eraikitzen inbertituko da eta gu ez gaude ados. Izan ere, dirutza haundiegia da eta ez da beharrezkoa. Une honetan badaude Iehentasuna duten beste hainbat proiektu: gazteentzako lokala, lokal kulturala.... Aurrera begira egin daiteke Udaletxe berria baina oraingoz dagoenarekin konpon gaitzeko. EAJk gainontzeko alderdien iritzia kontuan izan gabe onartu du 250 milioi gastatzea Udaletxearen eraikuntzan.

Bestalde, euskarari 1,5 milioi pezeta ematea lotsagarria da. Borondate eza adierazten du, garrantzirik izango ez balu bezala.

Azkenik, txaletak eraiki eta gero soberan dauden 400 m²tan kirol eta kultur ekipamendu berriak jartzearen alde gaude, Mendarok behar dituen zerbitzuak osa daitezen".

MTI
Menciaroko Talde independentea



11111,1999K0 AURREKONTUAK

GASTUAK

Langileen ordainsariak	29.510.000 pta.
Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak	63.475.000 pta.
Finantza gastuak	3.770.000 pta.
Transferentzia arruntak	8.600.000 pta.
Inbertsio errealak	222.625.000 pta.
Kapital Transferentziak	3.600.000 pta.
Finantza pasiboak	6.900.000 pta.
Guztira	338.480.000 pta.

SARRERAK

Zerga zuzenak	18.600.000 pta.
Zeharkako zergak	10.000.000 pta.
Tasak eta bestelako sarrerak	25.100.000 pta.
Transferentzia arruntak	86.354.000 pta.
Ondare sarrerak	1.852.000 pta.
Ondare errealen salmenta	10.317.000 pta.
Kapital transferentziak	36.257.000 pta.
Finantza pasiboak	150.000.000 pta.
Guztira	338.480.000 pta.

"Industrialidea haunditu beharra dagoela uste dugu, baina ez zaigu batere ondo iruditu alkatearen jarrera. Izan ere, detale guztiak lotu dituen arte ez dugu inolako informaziorik jaso.

Etxebizitzaren inguruan, egia da etxeak eraikitzea positiboa dela, baina planifikazioa egin behar da, zonak estrukturatu egin behar dira eta ez inolako plangintzarik gabe etxeak eraiki. Txaletei dagokionean, berriz, jendearen aldetik eskaria dagoen aztertu beharko litzateke aurretik eta, edozein modutan, etxeak eraikitzea bezain beharrezkoa da herritarrei zerbitzuak eskaintzea, dendak esaterako.

Udaletxeari dagokionean, HBrekin bat gatoz. Gehiegizkoa iruditzen zaigu Udaletxe berria eraikitzeko 150 milioi pezeta gastatzea, batez ere kontuan izanik beste proiektu askoz sinpleagoak atzera bota direla dirurik ez dagoela esanaz. EAJ-k izan duen jarrera salatu nahi dugu.

Txaletak eraikitzen direnean 400 m2 geratuko dira "libre" eta hor zer eraiki daitekeen ez dugu aztertu, epe luzera izango baita. Alkateak igerilekua egin daitekeela aipatu du eta guri ez zaigu gaizki iruditzen, beti ere behar bezalako azterketa egiten bada aurretik".

EA Nuria Ansuategi



Mendarozabaleko iturriak berrikuntzak izan ditu

Azkenaldian obra ugari egiten ari dira Mendaron. Izan ere, duela bost urte Mendarozabaleko plazan iturria egin zuten eta orain 3.000.000 pezetako kostua izan duten aldaketak egin zaizkio. Besteak beste, txorroa eta argiak jarri eta itxura berria eman diote iturriari.

Gas naturala Mendaron

Otsailaren 4an egindako udalbatzan, *Gas de Euskadi* enpresari gas naturala garraiatzeko instalazioa egiteko baimena eman zitzaion. Honela, "Elgoibar-Zestoa" izeneko sarea jarriko da Mendaron. Dagoeneko jaso dira ukituko diren terrenuen okupazio-aurreko aktak. Obra hauek egiteko sei biabeteko epea izango dute eta ondoren herri buruzko horniketara proiektuarekin hasiko dira.

Auto bakoitzeko 2,11 biztanle daude

1999. urteari dagokion Ibilgailuen Gaineko Udal Zergaren errolda onartu da dagoeneko. Zerga hau Ia-eta, 5.343.000 pezeta jasoko ditu Udalak aurten. Erroldan jaso dira gaur egun Mendaron dauden ibilgailuen kopurua eta datua benetan bitxia da. Izan ere, guztira 634 ibilgailu daude. Kontuan izanik Mendarok 1.340 biztanle dituela, auto bakoitzeko 2,11 biztanle daude gure herrian.

Aingeru Guardako jaiak

Datorren astelehenean, martxoak 1, Aingeru Guardako eguna da. Hori dela-eta, Plaza auzoko bizilagunek hainbat ekitaldi prestatu dituzte iganderako, otsailaren 28rako. Eguerdiko 12:00etan meza izango da Aingeru Guardako ermitan. Ondoren, Azpilaga eta Larrañaga arituko dira bertotan eta Kortaberri eta Xabin triki-


tilariak giroa alaituko dute soinuarekin eta panderoarekin. Eguerdiko 14:30ean lagun arteko bazkaria izango dute Aizpe Elkartean. Izena emateko Migel Angel Arriolari deitu (943 75 50 07) edo Aizpe elkartera jo. Astelehenean, mezak goizeko 8:00etan eta 11:00enut izango dira Aingeru Guardako ennitari.



Menlaroke Industrialde berria

Udalbatzak, Igartu-Zahar, Igartu-Berri eta Mala baserrietako terrenoen mugaketa erreserbaren proiektua onartu zuen Udal lurzoru ondarea gehitzeko. Terrenoek 50.000 m²-ko azalera dute eta Mendaroko Industrialde berria eraikitzeko erabiliko

dira. Otsailaren 19ko plenoan, lurren espropiazio-proiektua onartu zen. Proiektu honek 71.000.000 pezetatan baloratu zituen Industrialdea egiteko behar diren lurak. Baserrietako jabeek eman beharreko indennizazioak kopuru honen barruan daude.



Maite Barrietabeña Elgoibarren jaio zen duela 30 urte eta gaur egun Deban bizi da. Elgoibarko ofizina batean egiten du lan kontrol numerikoan. Orain lau urte txakur bat erosi zuten eta Bergaran karrera bate-tara aurkeztu ziren. Geroztik afiziotzat dauzka' txakur-rrak eta piskanaka lasterketen munduan sartu da. Aurten Pirenan eta Munduko Txapelketan laugarren postuan sailkatu da eta Eslovakiatik bueltan berarekin egoteko parada izan du.

MAITE BARRIETABEÑA

"Aurten laugarren postuen urtea izan da"

Nola sartu zinen mundu honetan?

- Txakur bat erosi genuen eta zenbait lasterketara aurkeztu ginen. Ondoren, beste txakur bat erosi genuen. Lehendabizikoak kumeak egin ondoren, Espainiako Txapelketara joan ginen eta han txakur gehiago erosi genituen. Gaur egun hogeitxakur dauzkagu eta zeharo sartuta nago mundu honetan.

— Aurten laugarren izan zara Pirenan.

Bai. Iaz hemezortzigarren geratu nintzen eta aurten laugarren postura arte igo naiz. Ez nuen horrelakorik espero, izan ere, aurten txapelketan Alaskako txakurrekin lehiatzeko aukera zegoen eta hauek Huskyak baino azkarragoak dira. Gainera partehartzaileen artean oso jende ona zegoen. Lortutako emai-

tza sorpresa handia izan da.

— Nola joan da Pirena?

Hamabost egunetan 480 kilometro egin ditugu, Tramaeastillan hasi eta La Molinara bitartean. Lehenengo egunak nahiko gogonak izan ziren elur asko zegoelako. Hirugarren etapa astuna izan zen. Hala ere, egun honetan 30 minutuko abantaila hartu nuen eta bederatzigarren postutik laugarrenera pasatu nintzen. Horrela, lasterketa guztian ziur joan nintzen, gehiegi arriskatu gabe.

— Zenbat txakurrekin hartu duzu parte?

- Hamabi txakurrekin hasi nintzen baina lehendabiziko egunetan bi lesionatu egin ziren eta besteak gazteeziak direnez, etapa motzetan baino ez ditut atera, beraz, lasterketa gehiena zortzi txakurrekin egin dut. Txakur batzuk nireak ziren

eta besteak Santi Campose-nak.

- Lasterkari batzuk ez daude ados Alaskako txakur-rrak erabiltzearekin.

Gaur egun Huskyez gain beste arraza batzuetako txakurak ere erabiltzen dira lasterketetan. Husky asko dauden arren, lehiaketetan jarraituz gero, jende asko alaskanoetara pasatutzen da. Txakur hauek azkarragoak dira eta etTazago gobernatzen dira. Hala ere, badira Huskyentzat soilik diren lehiaketak, beraz, norberaren erabakia da zein lasterketatan parte hartu.

- Nola prestatzen dituzu txakurrak?

- Urrian leku bigunetan entrenatzen dtwu, Landetan normalean, txakurrek muskulazioa landu dezaten. Ondoren elunetara joaten gara. Pirena aurreko hilabetean ez dute Iurrik zapaldu behar. Nire senarrak Baqueira Bereten pasatzen du astea txakurrekin eta ni asteburuetan joaten naiz. Laguntzarik izango ez banu ezingo nukeen horrelakorik egin, Elgoibarren lan egiten baitut. Zaila da lana eta afizioa uztantzea.


— Munduko Txapelketan zer moduz?

- Irabazteko intentzioarekin joan nintzen Eslovakiara, txakur onak neuzkan-eta. Baina bertara heltzeko bidaia oso luzea izan zen eta lasterketa egunean bertan iritsi ginenez, txakurrek ez zuten atsedena hartzeko denborarik izan. Lehendabiziko 2 etapetan 3. sailkatu nintzen baina azken egunean zorte txarra izan nuen eta, soka bat apurtu zitzaidanez, 4. postuan bukatu nuen lasterketa. Aurten 4. postuen urtea izan da, bai Pirenan eta bai Munduko Txapelketan.

EESTEAK ESANA

"Susan Buteher-ek, Sonja Van Laar-ek eta Maltek borondate eta barne-indar handia dute, gizonak nagusi diren kirol honetan arrakasta lortzeko behar dena."

FERNANDO RUIZ, senarra.





Silbia

Urigoitia 28 urteko elgoibartarra, gaur egun San Cugat del Valles herrian, Bartzelonan. 3 urte daramatza Katalu-

Silbia


Utrisoitict

nia aldean, baina ez da Elgoibanik urrun bizi den estreinako aldia. Aurrez, lau urte luze Ingalaterran pasa zituen eta handik bueltan, Elgoibarren denboraditxo bat egon ondoren, Ian kontuegatik San Cugateko enpresa batera joan zen, Silbia administraria baita. Oso gustura dabilela esan digu eta Bartzelonaka eguraldi ona eta hiri handiek eskaintzen dituzten aukera ugariak aipatu dizkigu. Hala ere, Elgoibarko familiak eta lagunak oroitzen da. Baina distantzia handiegia ez denez, ahai duen guztietan bueltatzen da Elgoibarrera, "batez ere Gabonetan, Aste Santuan eta Udan saiatzen naiz etxera joaten" Katalana ikasten ari dela esan digu, "oraindik hitz egiteko solturarik ez badakat ere, ulertu, dana ulertzen dot". Euskara gorde eta hitz egiteko zailtasunik ez du izan, familiarekin eta lagunekin sarri hitz egiten baitu telefonoz eta enpresako bezero batzuk euskaldunak direla aipatu digu. "Gainera nire ahizpa Elena herri berean bizi da eta berarekin euskaraz bitzegiteko aukera dakat". Izan ere, Silbiaren ahizpak 7 urte daramatza Kataluinian.

Atil --
=1F=
VIAJES **iger** IBIRIAK
311-3RO EXPQESS
bidaiak agentziak
babestutako atala
Foruen pfaza, 3
Tel: 943 74 39 12

Alberran Landa Artente

(1914-1994)



- 1914ko abuztuaren 7an jaio zen, Altxolako Torre Txiki basenian. 9 anai arreba ziren, bera zortzigarrena. Ikasketak Altxolan egin zituen, baina berak esaten zuen bezala, Hernaniko osabaren etxean egon zen urtean ikasi zuen batez ere.
- Gaztetan, hamar urte besterik ez zituenean, Altxolako bainuetxean eta Txoriko hotolean "botones" lanak egin zituen, beste hainbat altxolatarrek moduan. Garai haietan Altxokui 'Machil Txikia' deitzen zioten, jende diruduna etortzen zelako.
- Elgoibarren Bernardo Ecenarroekin 'Eseuela de Artes y Oficios' delakoan ikasi ondoren, Madalan zegoen Santzon aroztegiari hasi zen lanean.
- Erromerietara lagun artean joateko ohitura zuen itxura oneko gizezko honek. Ehiza asko gustatzen zitzaion, batez ere usotan aritzea.
- Barrenako indar etxeko aroztegiaren ardura hartu zuen beste bazkide batekin erdibana.
- 1936. urtean, hogeitabi urte zituela genara joan zen. Gerra denboran Enzaina izan zen. Ebroko hatailan bala batek bekokia justu-justu ikutu eta txiripaz libratu zen. Geroago, preso hartu zuten eta Miranda de Ebroko kontzentrazio zelaiaren gogortasuna azalean ezagutu zuen. Valladolideko 'Castillo de la Mota'n ere egon zen preso.
- Geroago, Santzonen aroztegiari hasi zen. 1950eko otsailaren 4an Arraitza baserriko Maria Agirregomezkortarekin ezkondu eta 4 seme-alaba izan zituzten.
- 59 **urterekin** autopistako peajea hasi zen lanean **eta jubilatu** arte egon zen bertan, 1979ra arte.
- Altxolan eta Elgoibarren estimatua eta ezaguna zen. Gogoko zituen C. D. Elgoibar eta Real Sociedad taldeak. Partidu ugari ikusitakoa zen Eibarko Astelena frontoian.
- Gizon borondatetsua eta sinesmen handikoa zen.
- 1994ko apirilaren 21ean hil zen 79 unerekin.

Juanito Gorostiza

HERRI-GAIN
ERRETEGIA

San Pedro auzoa, 4
☎ 943 74 30 40 ELGOIBAR

JOSE

(*rxema*)

**Mota guztietako
pintura eta
enpapelatuak.
Zoluak, moketak,
sintasola, kortxoak,
etab. jartzen dugu.**

San Bartolome, 28-1 ezk
Tel: 943 74 12 55
Mobila: 629 44 23 14



A

ste honetako erretratu Jose Antonio Osorok ekarri digu.

1963ko uztailaren 31n dago aterata, San Bartolome parrokiako koroan. Egun honetan koroak meza berezia kantatu zuen, Xabier Andonegi frantziskotarraren **estreinako**

meza zen eta. Izan ere, apaiz baten lehenengo meza gertakari handia izaten zen.

Argazkian ikusten dena orduko koroaren zati bat baino ez da. 110 lagunek osatzen zuten; inoiz 120 ere izan ziren. Zuzendaria Felix Lodoso zen eta bost ahotsetako Cassimiriren meza abestu zuten. Organoa jotzen Don Alejandro Irizar (t) apaiza aritu zen.

Argazkiaren ezker aldera eta atzean ikusten diren abeslariak baxuen kordakoak dira eta emakumezkoak, berriz, bigarren ahotsekoak. Bizkarra ematen daudenak gizezkoen bigarren ahotsekoak dira. Sopranoak eta tenoreak dira argazkian falta direnak.



"Espero naban maila ikusi dot Espainiako selekzioan, altua"



Ander Goikoetxea

- Adina: 18 urte.
- Gustuko beste kirolirik? Ikusteko futbola eta saskibaloia, baina praktikatzeko eskubaloia.
- Zaletasunik? Saxofoia jotzia.
- Zer ari zara ikasten? LOGSEko 2. maila.

- Jubenilen Espainiako Selekzioan egon zara. Kontaiguzu zer moduzko esperientzia izan den. Karta bidez jakinarazi ziaten konbokauta nauala eta Murtziako Los Alcazares herrixan egon naiz beste 16 jokalarirekin. Hiru egun pasau ditxugu kontzentrauta, otsailaren 14tik 17ra bitxartian.

- Maila handiko jokalariai elkartuko zineten, ezta? Bai, kalitate handiko jendia zauan han, ni eta beste bat ginan gaztienak. Ni oindiokan jubenila naiz eta gainontzeak juniorrak zian. Oso nibel altua zauan, baina aurrez espero naban maila topau naban.

- Euskaldun bakarra izanda, zela konpondu zara taldekideekin? Oso ondo hartu naute, izan ere, hiru edo lau jokalaria zaharragoak kenduta, bestiak ezagutzen nitxuan. Bost andaluz eta lau asturiar zeuden eta gainontzeak leku askotatik jundakuak zian, Madriletik, Kataluinatik... Dana dala, Enskadiri buruzko gaidera tipikuak eitzen zizkiaten, zela bizi geran hemengo arazuekin...

- Selekzioarekin aurrera jarraitzen baduzu, atzerrira ere joan al zaitezke? Bai, aurrera jarraitzeko aukeratzan banaute Suitzan bi hilabete barru jokatuko den aurre-europeora joateko aukera izango dut, eta han saiklapena lortu ezker, maiatzean Portugalen jokatuko den Europako Txapelketara joateko txartela irabaziko genuke. Lehenengo, ordea, Toledoko *Kopa Latina* delako tomeoa geratzen zaigu jokatzeke.

- Hartuko zaituzten itxaropenik? Hamar jokalaria-edo fijuak dia, batez ere zaharrenak. Baina gaztiena izan arren, nere burua ondo ikusi naban.

- Honakoa ez da selekziara deitu zaituzten lehenengo aldia. Ez, orain dela urtebete, Gabonetan hain justu, aurre-selekziara joateko deitxu ziaten, Guadalajarara, baina min hartuta nauan eta bertara jun arren, ezin izan naban entrenau. Gainera, Rusiara joan zian Europako Txapelketa jokatzerara eta pena handixa eman zian ez jutiak, batez ere taldekuei han bitzako istorixuak entzun eta gero.

- Zer postutan jokatzen duzu? Eskumako estremuan jokatzen dot, ezker-tixa bainaiz.

- Zer behar da eskubaloian aurrera egiteko? Kalitate indibidualaz gain, erresistentzia eta indarra eukitzia ere komeni da. Gorpuzkera sendua euki bihar da, kontaktu eta txoke askoko kirola baita. Mailaz igotzen noan heinean nabaritzen dot aurkakuak gero eta indartsuauak diazela, baina oindiokan badakat astixa hobetzeko.

- Bidasoan jokatetik Arratera pasa zara, zergatik? Batez ere denbora asko galtzen nabalako. Astian lau egunetan juten nitzan entrenatzera, etxetik arratsaldeko 3retan irten eta gabeko 10etan ailegatzen nitzan eta hori oso gogorra da, ikasketak aurrera ateratzeko eta beste gauza askotarako.

KIROL ALBISTEAK

• Brontzea Gorka Garaterentiat Espainiako Judo Txapelketan

Ibai Kirol Elkarteko Gorka Garate judokak hirugarren postua eskuratu du Espainiako Judo Txapelketako sektorean, junior mailan. Txapelketa pasa den asteburuan jokatu zen Lakunzan (Nafarroa) eta Euskadiko selekzioarekin hartu zuen parte. 81 kiloz azpiko mailan aritu zen

Gorka. Hiru borrokaldiren ostean, urrea eta zilarra irabazteko aukerarik gabe geratu zen elgoibartarra. Hortaz, hiru judoka geratu ziren hirugarren postua eskuratzeke aukerarekin. Borrokaldi hauetan Gorka erraz nagusitu zen eta berarentzat izan zen brontzea.

ESKOLARTEK@KIR@LAK

EMAITZAK Otsailak 27 14. arunaldia

ESIWBALOA (Ikastelan)

■ Benjamin mutilak ■

10:00 Pilar A- Mendaro A

10:30 Ikastola A - Ikastola C

11:00 Herri Eskola A - Ikastola B

11:30 Herri Eskola B Pilar B

■ Benjamin neskek ■

12:00 Ikastola B Ikastola C

12:30 Ikastola A Pilar A

ESKUBALOA (Kiroldegian)

■ Benjamin neskek ■

9:00 Ikastola B - Ikastola D

9:45 Ikastola A - Ikastola C

11:15 Ikastola E Jauja

12:00 Pilar A - Pilar B

■ Intantil neskek ■

10:30 Insti Pilar B

12:45 Pilar B - Pilar A

FUTBOLA (Mintxetan)

■ Alebin neska-mutilak 11 A zelaia

9:15 Pilar B - Pilar A (Nes.)

10:00 Mendaro A - Txinpartak

10:45 Hamaika Txiki - Goizeko Izat D

11:30 Ikastola C - Mikel Deu. A (Nes.)

12:15 Herri Eskola - Ikastola A

B zelaia

9:15 Mendaro A - Ikastola B

10:00 Ikastola C - Lekube

10:45 Hamaika Nes - Goizeko Izar B (Nes.)

11:30 Goizeko Izar. A - Mikel Deu. B

12:15 Ikastola B - Ikastola A (Nes.)

Elgoibar eskubaloiko senior nesken taldeak mailaz igotzea lortu du

3 partidu falta dira Liga amaitzeko, eta dagoeneko txapeldunak dira



IMS Elgoibar taldekoak eta Eneko Kortabarria entrenatzailea agertzen dira argazkian. Datorren denboraldirako erronka lehenengo mailara igotzea da.

Oraindik 3 partidu falta zaizkie Liga amaitzeko, baina jokaturako 17 partiduetatik denak irabazi dituzte. Bigarren sailkatuari 14 puntuko aldea ateratzen die, beraz, matematikoki Ligako txapeldunak dira eta partidurik galdu gabe bukatzea lorpen handia litzatekela adierazi digute. 2.B mailatik 2.Ara igoko dira eta aurtien erakutsitako jokoaren arabera, maila horretan ere ondo ibiltzeko itxaropena dute. Datorren denboraldirako erronka lehenengo mailara igotzea da. Eneko Kortabarria entrenatzaileak adierazi digunez, "nesken eskubaloian Euskal Herriko kantera onena duen herria da Elgoibar. Horren adibide garbia da kadete eta jubenil mailako taldeak sailkapenean lehenak daudela Euskal Ligan puntuazio globala kontuan hartuz. Nesken eskubaloiak ziurtatuta du etorkizuna Elgoibarren".

Gaztetasuna eta esperientzia

Enekok esan digunez, "talde orekatua osatu dugulako lortu dugu aurtien arrakasta, talde berean gaztetasuna eta esperientzia batu ditugulako". Seniorretako taldearen bizkarrezurra 18 urte inguruan dabil-

tzan 8 jokalarik osatzen dute, "kadete mailatik elkarrekin jokatzen dute, eta maila guztietatik pasatuz, senior izatera iritsi diren lehenak izan dira".

Elkar oso ondo ezagutzen duten jokalarik gazte hauei esperientzia handiko beste jokalarik batzuk gehitu behar zaizkie. Nicoleta Citu, 35 urteko jokalarik errumaniarraren kasua da aipagarriena, Errumaniako selekzioarekin nazioartean jokatu duen jokalaria, alegia. Cituk Eibarko Arrate taldean jokatzen zuen eta taldea desagertu zenean Elgoibarrera etortzea erabaki zuen. Nicoletaren eta beste taldekide berrien esperientziak asko lagundu die jokalarik gazteenei.

Apiriletik aurrera hasiko den Kopa Txapelketa irabaztea da IMS Elgoibar taldearen hurrengo helburua eta zenbait jubenilek senior mailakoekin jokatzeak aukera izango dute. Enekok ustez, "senior taldea sortu ondoren, adin guztietako nesken eskubaloiko taldeak egotea lortu dugu, eta beraz, etorkizunean jokalarik gazteagoek aukera gehiago izango dituzte eskubaloian jokatzeak".

EMAIT A

Areto Futbola

Zur Ta Lur Elg. 1 - Gubi 4 (1. maila)
Zur Ta Lur Elg. 7- Cer. Nogales 3 (Aut.)

Eskubaloia

IMH Elg. 25 - Urrietako 14 (Sen. mut.)
Unceta Elg.13 - Ermua 5 (Kad. nes.)
Pagoaga Elg.11 - Aloña Mendi 5 (Kad. nes.)
Unceta Elg.15 - Aloña Mendi 15 (Jub. nes.)
Puipo 15 - IMS Elg. 24 (Sen. nes.)

Futbola

Elgoibar 0- Bergara 4 (1. jub.)
Elgoibar 2- Usurbil 2 (1. erreg.)
Elgoibar 13 - Ifrki 0 (Neskak)
Valladolid 2 - Haundi 0
Miren Bihotza 0- Pedrusko 2 (2. erreg.)
Astileku 6 - Elgoibar 0 (L. N. jub.)
Aloña Mendi 10 Elgoibar 4 (Kad.)

Futbitoia

Los Peñaskos 2- Kunta Kinte 2
Aizkorak Mendibil 1 - PSK 10
Aide Globun 5 - Lojantzi 9

Idarraga Kafeak 2. saria

HAUNDIko jokalarik erregularrena 98199
JOKALARIA PUNTUAK

1- Aitor Trebiño	32
2- Eneko	24
3- G. Lazarbaster	23
4- Diaz	21
5- Ibon Muguruza	20
6- Txasio	18
7- Beitia	18
8- Iker Leonardo	17
9- Elkoro	15
10- Madina	14
11- Caro	14
12- Igor	11
13- G. Leonardo	10
14- Loren	9
15- Gurrutxaga	4
16- Portu	1

AGENDA

Futbitoia, Kiroldectian

Igandea, 28
10:00 Lojantzi - S. braga
11:00 Gerrogei Duro - Los Peñaskos
12:00 PSK - Los Herminios
13:00 Aide Globun - Aizkorak Mendibit

Eskubaloia, Kiroldectian

Larunbata, 27
16:00 Pneumax Elg. - Arrate (Kad. mut.)
17:30 Tecnomeca Elg. - Arrate (Jub. mul.)
19:00 IMH Elg. - Jauja (Sen. mul.)

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 27
17:00 Haundi - Barakaldo
18:45 Pedrusko - Baskonia (2. erreg.)
Igandea, 28
12:00 Elgoibar - Aretxabaleta (Inf.)
16:30 Elgoibar- Santutxu (L. N. jub.)

Korrika Kulturalaren lehenengo ekitaidia martxoaren 5ean izango da

Pako Aristik eta Mikel Markezek musika eta poesia saioa eskainiko dute Kultur Etxeko sotoan

Korrika Kulturalaren barruan, Mikel Markez abeslariak eta Pako Aristi idazleak 'Tribuaren hitz galduak' izeneko emanaldia eskainiko dute. AEK Euskaltegiak Udalaren Euskara Batzordearen laguntzaz antolaturiko saioa da. Emanaldia Kultur Etxeko sotoan izango da, martxoaren 5ean, ostirala, gaueko 22:30etan. Sarreraren zenbatekoa 300 pta.koa da.

'Tribuaren hitz galduak' izeneko koktel arriskutsu honetan Urrestillako idazleak eta Errenteriako musikariak bikote bitxia osatzen dute. Emankizun honetan gizakiak hitza nola sortu zuen erakusten digute musikaz eta poesiaz baliatuz. Hipotesi batzuk botaz, jendea zergatik eta nota hasi zen hitz egitzen azaltzen saiatzen dira.



Pako Aristik eta Mikel Markezek 'Tribuaren hitz galduak' emanaldia aurkeztuko dute martxoaren 5ean, Korrika Kulturalaren barruan.

AEKren Sagardo Eguna

Bestalde martxoaren 6an, larunbata, AEK-k antolatuta 3. sagardo Eguna izango da Astigarragan. Egitarauaren barruan, bakailau lehiaketa, trikitilariak eta bertsolariak eta inguruko sagardotegietan egingo diren bazkariak antolatu dituzte AEK-koek. Bazkariaren prezioa 2.500 pta.koa da eta txartela jasotzeko epea martxoaren 2an bukatuko da. Arratsalde partean Txatunga Bembek, Morauk eta Joxe Ripiauk kontzertuak eskainiko dituzte Gauean, berriz, Mundifiano Anaien erromeria goizaldeko 01:00 aldera arte luzatuko da. Informazio gehiago nahi izan ezker, AEK euskaltegiak Aita Agirre plazan duen egoitzara joan edo 74 13 32 telefonora deitu.

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO ASTEA

1NAUGURAZIOA
martxoak 26, 19:00etan

ERAKUSKETA arteak emakumea

martxoak 5. ostirala

Antzerkia

'ACTO IMPREVISTO'

Teatro Estable de Mdaga

22:30ean Herriko Antzokian

martxoak 6 larunbata

Kafea

Herriko Emakumeen ekitaldia

Kantariak, trikitilariak,

bertsolariak...

22:30ean Kultur Etxeko sotoan

KULTUR ETXEAN

99-02-26tik 99-03-14ra


— Astegun eta larunbatetan 19:00etatik 21:00etara

lgandetan 12:00etatik 14:00etara



GAZTE 11/11-Im aurpegi berria

Azken aldian Gaztetxean izan diren antzemango zituzten bortan izandako aldakotak. Besteak beste, margotu, lurra berriztu eta gela berriak egin dituzte, Elgolbarko gazteak bertan elkartu eta ondo pasatu ahal izateko. Baina itxura berri horren atzean lan handia egon dela ozin dupu ukatu.



Gaztetxea martxan dagoenetik obrak ez dira sekula gelditu. Hasieran Udalak zati bat egin zuen eta ondoren, Gazte Asanbladak hartu du piskanaka gaztetxea hobetzeko ardurara. Azken berrikuntzak orain denbora gutxi egin dituzte. Abenduan 2 gela egin zituzten. Bat biltegia izango da eta bestean, ikastaro eta hitzaldiak antolatzeko asmoa daukate. Dirutza (handiena lurra konpontzeko erabili da. Gaztetxetik ateratzen

den zarata sahiesteko, auzokideei agindu zitzaizen bezala, ate printzipalaz gain, bigarren bat egin dute eta baita auzokoei begira dauden lehoietan toldo bat jarri ere. Bigarren komuna eta sukaldea egiteko obrak ere aurrera doaz Gaztetxean. Honekin batera egurrezko banko luze bat eta mahai eta aulki berriak ere jarri dituzte. Obra hauez guztiez gain, kontzertuetarako erabiltzen den aretoa eta ofizinaren aldeko

horma ere margotu dituzte. Orain, barraren parean dagoen paretaz pintatzea geratzen zaie. Obra batzuek Gazte Asanbladako kideek beraiek egin dituzte, lurra eta paretak berriz, kontratatutako jendeak.

Gaztetxea irekt zenetik honako obren kostua lau milioi eta erdi ingurukoa da. Bi milioi 1998ko Udalaurrekontutik zituzten eta gainontzeko dirua autogestioaren bidez eskuratu dute, batez ere, barratik.



AURRERA BEGIRA, ZER?

Martmotik aurrera ikastaro interesgarriak antolatu eta jende gaztea erakartzeko asmoa dute. Ekitaldirik nagusia kontzertuak izango zirela kontuan hartuz, eskentoki handia jarri zuten. Hasieran ia astero antolatzen ziren kontzertuak baina denborarekin gutxitu egin zituzten jendearen erantzuna ez baitzen hainbestekoa. Egun, kontzertuez gain beste ekitaldiren bat antolatzen saiatzen dira. Aurrera begira, Gaztetxea dagoen lekuan etxebizitzak eraikitzekeo proiektua dago. Udaletxearekin sinatutako akordioaren arabera, Gazte Asanbladak ez du proiektua aurrera eramateko eragozpenik jarriko, baina Udalak Gaztetxea kokatzeko leku berriren bat eskainiko dio. Hala ere, ezertan hasi aurretik urte batzuk pasatuko direla uste dute, eta horregatik, jendea erakarri asmoz egin dituzte berrikuntza hauek guztiak.

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak ☎ 943 461111
Txanda hartzeko . 943 743354
Planning-a ☎ 943 742950
Alkoholiko Annimoak . 943740385
D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
Gurutze Gorria ☎ 943 743864
Mendaroko Dspitalea.. 943 032800
Odol Emailak ☎ 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .. 943 740442
PESA (Elbar) .. 902 10 12 10
Taxi geltokia 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua... 943 744366
Udal Kirol Palronatua . 943 744415
Kultura Zerbitzua.. 943 742158
Mendaroko Udala... 943 756100
Ongizate zerbitzua ☎ 943741008
Udaletxea ☎ 943 741050
Udallzaingoa.. ☎ 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra ... 943 741626
Kiroldedia ☎ 943 744415
Kontsumo Bulegoa ☎ 943 743088
Liburutegia ☎ 943 743525
Musika Eskola ☎ 943 742145
Mintxeta ☎ 943 744315
Parrokia ☎ 943 740842
Postetxea ☎ 943 741547
Gaztetxea ☎ 943 743572

ADINEKOEN ETKEAK

San Lazaro Egoitza.. 943 740296
Zaharren Biltokia ... 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola ... 943 74 21 41
HHI (EPA) ☎ 943 74 08 80
Herri Eskola ... 943 74 08 79
I.M.H. ☎ 943 74 41 32
Herri Institutua
Arreiturre ☎ 943 74 02 67
Ezenarro (Meka).. 943 74 44 80
Ikastola ☎ 943 74 44 41
Pilar Ikasteixea.... 943 74 13 31

KONIUNIKABIDEAK

BARREN ☎ 943 74 41 12
El Diario Vasco ☎ 943 74 40 73
El Correo Español.. 943 74 10 82
Egin ☎ 943 10 84 21
Zazpiki irratia ☎ 943 74 34 74

2G ostirala

**19:00 ELGOIBARKO
EMAKUMEEN
ESKULANEN
ERAKUSKETA**

Kultur Etxean
Antolatzailea:
Haizea Emaktune Taldea
Martxoaren 14ra arte

**19:30 HITZALDI
INFORNATIBOA**

Gaia: Haurrak familietan
hartzeko programa
Antolatzailea: Gipuzkoako
Foru Aldundia
Hizlaria: Gizartekintzako
teknikaria
Kultur Etxean

22:15 ZINE KLUBA
"El rey de las mas' searas"

**22:30 DIAPOSITIBA
EMANALDIA**

Gaia: Belfast
Gaztetxean
Antolatzailea:
Gazte Asanblada

27 larunbata

10:00 ZUHAITZ EGUNA
Mintxetan

**12:00 URRUZUNO
LITERATUR TALDEAREN
BILERA**
BARRENen

**12:00 ZAZPIKI
IRRATIAREN BILERA**
Ganbaran

19:30-22:15 ZINEA
"Studio 54"

28 igandea

12:00 UR JOLASAK
Olazaiga Kiroldegian
Antolatzailea:
Eskola Kirola Programa

16:30 ZINEA
"Tu a Londres, y yo a
California"

19:30-22:15 ZINEA
"Studio 54"

1 astelehena

**18:00 OINARRIZKO
BUZTIN IKASTAROA**
Aita Agirre plazan
Antolatzailea: *Lurki*
Zeramika Taldea

22:15 ZINEA
"Studio 54"

3 asteazkena

19:30 HITZALDIA
Gaia: Afrika
Hizlaria: Gustau Nerin,
`Centro de Estudios
Africans'ekoak
IMHn

11 NE A



Zuzendaria: Mark Christopher.
Antzezleak: Ryan Philippe,
Salma Hayek, Neve Campbell.

Studio 54

New Yorkeko Manhattan auzoko Studio 54 diskoteka ospetsuan drogak, sexua eta disko musika dira nagusi, 70. hamarkada osoan bezala. Pelikulako protagonista gaztea diskoteka mitiko honetako kamareroa da eta lokala itxi aurreko azken hilabeteetan pertsona bitxiak eta egoera zoroenak ezagutuko ditu. Izan ere, benetan existitu zen diskoteka honetara joaten zirenen istorioa kontatzen du pelikulak.

5 ostirala

**18:30 ODOL
ATERALDIA**
P. M. Urruzuno 8an

**22:30 KORRIKA
KULTURALA
MIKEL MARKEZ eta
PAKO ARISTIREN
MUSIKA eta POESIA
EMANALDIA**
Kultur Etxean
Antolatzailea:
Elgoibarko AEK

22:30 ANTZERKIA
Antzeztaldea: Teatro
Estable de Malaga
Antzezlana: "Acto
Imprevisto"(gaztelaniaz)
Antolatzailea:
Haizea E.T.
Herriko Antzokian

• 20 zuhaitz landatuko dira Zuhaitz Egunean

Larunbatean, hilak 27, Zuhaitz Eguna ospatuko da Mintxetan goizeko 10:00etatik aurrera. Gipuzkoako Foru Aldundiak bertoko zuhaitz motak sustatzeko asmoa du. Helburu horrekin Elgoibarko ikastetxeetako ikasleek 20 zuhaitz landatuko dituzte. Zuhaitzen beharraz ohartzeko eta kontzientzia hartzeko, idatzizko informazioa banatuko zaie paterhartzaileri.



• Emakume elgoibartarren erakusketa Haizea Emakume Taldeak antolatuta

Gaur, hilak 26, Haizea Emakume Taldeak antolatutako erakusketa hasiko da Kultur Etxean. Artea eta emakumeak uztartu nahi izan dituzte erakusketa honetan. Izan ere, herriko hainbat emakumeren arte-lanak ikusgai egongo dira: argazkiak, margoak, eskulanak etab. Inaugurazioa iluntzeko 19:00etan izango da. Erakusketa martxoaren 14ra arte luzatuko da.

• Haurrak lamilietan hartzeko programari buruzko Hitzaidia, gaur, hilak 20.

Gaur, hilak 26, iluntzeko 19:30ean Foru Aldundiko Gizartekintzako teknikariek, arazoak dituzten familietan bizi diren haurrei laguntzeko antolatu duten kanpainari buruzko hitzaldi informatiboa eskainiko dute. Kanpainaren helburua, bizimodu egonkorrik ez duten haurrei laguntzea da. Familia biologikoaren egoera normaltzen den bitartean, beste familia batekin bizitzeko aukera eskaintzen zaie haurrei.

• Laheko esmalte ikastaroa

Egur Arte Tailerrak 30 orduko labeko esmalte ikastaroa antolatu du. Martxoaren 10ean hasi eta 31ra arte luzatuko da. Ordutegia arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara bitartekoa da. Ikastaroan parte hartu nahi duenak Egurrek Ubitarte Plazan duen egoitzan eman dezake izena lehen aipatutako ordutegian.

• Ur jolasak Eskola Kiroleko haurrentzat

Eskola Kirola programak ur jolasak antolatu ditu Eskola Kirola programan parte hartzen duten haurrentzat. Domekan, hilak 28, Olaizaga kiroldegiko igerilekuan izango dira jolasak goizeko 12:00etan hasita.

• I Hapositiba emanaldia Gaztetxean

Gazte Asanbladak antolatuta, gaur, hilak 26, diapositiba emanaldia izango da Gaztetxean. Gaueko 22:30ean hasiko da eta Belfast-i buruzko irudiak ikusteko aukera izango da.

• Odol ateraldia martxoaren 5ean

Datorren ostiralean, martxoak 5, odol ateraldia izango da Odol Emailek Pedro Migel Urruzuno 8an duten egoitzan. Ordu-tegia ohikoa da, 18:30etik 20:30ak arte. Odol Emaileen Elkartekoek dei egin nahi die herritar guztiei odola eman dezaten.

1 J1 D 1,1

FARMAZIAK

Egunez Gauez

27 Etxeberria* Zabaleta*
(Santa Ana kalean)

28 Etxeberria* Zabaleta*
(Santa Ana kalean)

1 Etxeberria Etxeberria
(Santa Ana kalean)

2 Escala Escala

3 Bidaso Bidasolo

4 Elberria Etxeberria
(Santa Ana kalean)

5 Anduaga Anduaga
*teguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 943 75 1 6 38

ANDUAGA: Mendarozabal, 1

Garagarza. Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OK1NDEGIA

28 igandea Zabaleta

• 11 • • • • la ■ 111

Ongarri Zine Klubaren oharra:

Datorren astean ez da zine klub saiorik izango. Martxoaren 11n eta 12an, J.Sayles zuzendari iparramerikatraren "Hombres annados" filma izango da.

■ ZI • • • • • al ■

OHARRA: MorkatuTxikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.

Salerosketak

Lana



ESKAINZA

• Urneak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da. zt 943 74 20 32 (arratsaldeko 19:30etik aurrera)

ESKAERA

• Neska eskaintzen da. Arduratsua eta esperientziarekin etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. a 610 68 52 95

• Magisteritza ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko Elgoibar edo Mendaron. Orduetgia hitz egiteko-tan. s 943 74 20 94 (Yolanda)

• Ernakurtea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. zr 943 75 62 57

• Etxeko lanak egin edo lokalak, dendak eta portalak garbituko nituzke. Esperientzia eta informeak ditut. zr 943 74 38 45 (Matilde. Erantzungailuan laga mezua)

• Ostalaritzan, umezaintzan eta garbiketean esperientziadun neska eskaintzen da. mr 943 74 22 03/943 74 07 07

Bestelakoak

• Jubilazioagatik, martxan dagoen negozioa traspasatzen da Merkatu Plazan. Prezioa hitz egiteko (aukera ona). zr 943 74 02 27 Celsa

• Urrezko aliantza galdu nuen Inauterietako larunbatean, Tr 943 74 40 56 (Manoli)

• Katua oparitzen da. Interesatuek deitu 943 74 05 62 telefonora. (Almudena)

• Caritas-ek bi ateko annairua eskaintzen du. zr 943 74 15 09

Garajeak

• Garajea saltzen da Urasandi 6an. Argi independentea. zt 943 74 08 63

• Garaje itxia salgai Polikiroldegi ondoan a 943 74 21 31 (Santi)

• Garajea salgai Leku Ederren. zr 943 74 43 98

• Garajea itxia salgai Pista beltzean. 71 943 74 03 81

SALD11

• Ford Courier Combi 1.8D-a tzen da. Ondo zaindua, 1992ko uztailean erositua.

tr 610 65 34 52 (gauz)

• Gorreriaentzako aparatua saltzen dut, 8 hilabeteko garantia du. tr 943 74 21 40

• 14 7ko pantaila, 10X CD ROMA eta S3 txartel grafikoa salgai. Oso merke. le 943 74 00 07

• Game Boy-ko jokoak saltzen ditut. zr 943 74 11 85 (16:30etik aurrera deitit)

• Butanoko estufa saltzen dut. zr 943 74 23 90

Etxebizitak

• Pisu alokatzen da Erretxindin. [Altzariek](#). zr 943 74 33 06

• Etxebizitza saltzen da Errosario kalean. s 943 74 17 95

• Pisu edo buhardila bat hartuko nuke alokairuan. zr 943 74 31 75

• Etxea saltzen da Sama Ana kalean. 2. pisua da, ganhara eta igo gailuarekin. zr 943 74 03 83 943 74 18 34

• Kanpora ematen duen pisua saltzen dut. Eguzkitsua. Lan logela, sukaldea, saloi-jangela, bi bainugela eta patio-trasteroa. Oso haundia da. Urasandin. a 943 74 14 54 (gauz, 22:00-04:00)

• Pisua saitzen da Mendaron. 76 m2 ditu. fr. 943 74 31 07

• Pisua behar dut alokairuan. Sei hila heterako. Altzariek bada hobe. zr 649 03 65 82 (Santi)

Agurrak

• Aupa Nere! Despedida nahi zenuela? ha, tori despedida. Ondo ondo pasau Cuban eta ez ahaztu gutaz erregaluak ekartzera. Erregalu haundixena ez hartu zurretzat... Zerbait merezi duena badao, ekarri, konpartiduko dou eta. Muxuak zure kuadrilakoan partez,

• Zorionak Victor Jose Martini 27 urte betetzen dituelako bere emazte, seme eta Nela maskotaren panez.

• Zorionak Loli Agirrezabali hilaren 24an urteak bete zituelako. Alazneren partez.

• Zorionak Alazneri hilaren 25ean II urte hete zituelako Solfeoko lagunaren parte. Espero dugu solfeoko kantua ondo ikasita edukiko duzula, bestela Itziarrek...!

• Zorionak Rosa Vegasi hilaren 1.8an urteak bete zituelako. Familia osoaren partez, eta hereziki Ana eta zure iloha Laura eta Amaia partez.


• Zorionak Amaia Fernandezi hilaren II urteak bete zituelako. Ikastolako DBHko 2. mailako partez.

• Zorionak Naiarari hilaren 17an 11 urte bete zituelako. Bere lagun Laura eta Ainhoaren partez.

• Zorionak Inaxio Beteluri, igandean 71 udaberri beteko dituelako. Ondo ondo pasau zorgiñen panez.



• Aupa Reto! zela joan leike Txilera Santiago etxean izanda! Ondo




• Zorionak Ane Iñiguez 6 urte bete dituelako, Danel, Ion, Maria eta Arantzaren partez



• Zorionak Atnets Izagirre 14 urte beteko dituelako. Etxeko guztien partez. Baita ere


D.B.Hko 2. mailako partez, eta bereziki suzko zezenaren partez.



• Zorionak Jonatani hilaren 13an 4 urte bete zituelako. Guraso, amama eta anai-arreben partez.



• Zorionak Alazneri atzo 11 urte hete zituelako. Gurasoen, Nagorenen eta Maiteren partez.



• Zorionak Miraril Nolako politxa zinan txikitzen eh? La-sai, urte "asko" pasatu dira baina esaera zahanak dioen bezala, la que tuvo la retuvo".



• Zorionak Eiderrri hilaren 24an 4 urte bete zituelako. Gurasuen eta anaia Ionen partez.



• Zorionak Mikei Solasi gaur urteak bete dituelako. Etxeko partez.



• Zorionak Mirentxuri bihar. 15 urte beteko dituelako, Familia osoaren partez, Ondo pasau, asku ligatu eta gutxi gastatu.




• Zorionak Iñal Larrafiagari igandean bere urtebetetzea delako. Aitaxo eta amatxoren partez.



• Zorionak Maritere Garateri igandean urtean betetzen dituelako. Familia osoaren partez. Ondo ondo pasau dezazula eta ia

notizia pozgarririk duzun...




• Zorionak Antonio Cantosi martxoaren leian bere urtebetetzea delako. Arrate, Aitor eta Ainhoaren partez.



Aupa aitaxo!



• Zorionak Ainhoa Garateri otsailaren 28an urteak beteko dituelako, Familia osoaren partez.



• Zorionak Antxon de la Arada Kortazarri otsailaren 23an urte bete egin zuelako. Familia osoaren partez, eta bereziki, anai-arreba Ane eta Haritzen partez.



• Zorionak Borjari hilaren 22an 8 urte bete zituelako, Guraso, anaia Ignacio eta Itziarren partez.



QA :3 RIDGE

Examinations, Certificates & Diplomas
ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE

MATRIKULAK:
martxoaren lefik liro

UNIVERSITY OF CAMBRIDGE LOCAL EXAMINATIONS SYNDICATE

Informazioa eta matrikulak

ELGOIBAR: Kensington School of English	943 74 02 36
Faxa:	
Key Aeadenda de Ingles	943 74 02 36
DURANGO: Compuhit English Institute	943 74 02 36
ARRASATE: Parlane	943 74 02 36
Cim-Ahizke	943 79 01 32
BERGARA: Espolon School of English	943 76 03 53
EIBAR: Anglo-American	943 20 64 57
Interdiornas	943 12 10 03
Ukitze	943 70 25 59
Idiomas	943 20 39 59
OÑATE: AR 11 School of English	943 71 61 37
Cim-Ahizke	943 71 60 00
ONDARROA: Howdy Aeaderny	94 613 43 26

Azterketak eta datak

Young Learners (Starters, Movers, Flyers)	ekain
K.E.T. (Key English Test)	ekainak 1
P.E.T. (Preliminary English Test)	ekainak 1
F.C.E. (First Certificate English)	ekainak 1
C.A.E. (Cambridge Advanced English)	ekainak 16
C.P.E. (Cambridge Proficiency English)	ekainak 17
B.E.C.1 (Business English Certificate 1)	maiatzak 29
B.E.C.2 (Business English Certificate 2)	ekainak 5
B.E.C.3 (Business English Certificate 3)	maiatzak 29
ToKIA: ARME.	

ZEZEN-BIDE

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak

AUTO-ESKOLA



9,-,- jOdrri
Gazte Txartelarekin



TEATRO ESTABLE DE MALAGAK



Martxoak 5, ^{44.11}11110⁰

Gaueko 22:30ean

HERRIKO ANTZOKIAN

Gageg:

NIVg,uei

IVVINIS

TO

oazteaviiaz)

P 30(9....1£.N OI)



Kultura Saila

HAI ZEA

Elgoibarko Emakume Taldea